

Prentsa
Prentsa-dossierä. Vitoria-Gasteiz

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital





Buruileria plaza



1. Enogastronomia,

Gastronomiaren Hiriburu izan baitzen (Goxo Bidea, Delicatessen bidea, Pintxo Ibilbidea).

2. Hirigune historikoa

monumentu multzoa.

3. Bisita gidatuak

Santa Maria katedrala zaharberritzeko lanetara.

4. Museoak.

Arkeologia museoa. Fournier Karta Museoa. BIBAT museoa.

5. Eraztun Berdeko parkeak

batez ere Salburua, Europako Green Capital izateagatik. Ataria: Salburuko Interpretazio-zentroa.

6. Artium

Arte Garaikideko museoa.

7. Errenazimenduko jauregiak

8. Erdi Aroko Harresia (XI. mendea).

9. Done Jakue Bidea Vitoria-Gasteizen barrena.

10. Ibilbide erromantikoa

11. Hiri irisgarria



Matxete plaza



VITORIA-GASTEIZ, EUSKADIKO HIRIBURUA

Vitoria-Gasteiz, Euskadiko hiriburua, Arabako Lautadaren erdialdean dago, Madril eta gainerako Europa lotzen dituen N-1 errepidean.

243.918 biztanleko zerbitzu-hiri modernoa da eta era armoniatzuan batu du bere iragan historikoa; batze horren isla da abangoardiako arkitekturaren zantzuak dituen kultura ondare interesgarria.



HISTORIA

Hiria 1181. urtean sortu zuen Antso VI. Nafarroakoak, Nueva Victoria izenarekin, Gasteiz izeneko lurralde baten gainean. Harresitutako hiria zen, Nafarroako defentsarako aurreko taldea zena. 1200. urteaz geroztik, hiria Gaztelaren barnean sartu zen, eta 1202. urtean hiriko lehendabiziko zabalgunea eraiki zen, hiriaren mendebaldean hiru kale eraikiz. Mende horretan bigarren zabalgunea bat egin zen, hiriaren ekialdean beste hiru kale irekiz.

Vitoria-Gasteiz giza-eskalan eraikitako hiria da. Berau definitzen duen ezaugarri behinena da zenbait elementuri ematen zaien garrantzia: inguruneari, oinezkoentzako bihurtutako erdiguneko guneei, eskaintza kultural zabal eta osatuari, zerbitzu publikoen eskaintzari (gizarte etxeak) eta kiroltarako gunek bikainei; elementu horiek bertan bizitzeko pentsatutako eta diseinatutako hiri bihurtzen dute.



Olagibel arkitektoaren Arkupeak



Vitoria-Gasteiz denboraren joanaren eszenatokia da, bertako jendearen bizipenena, bata bestearen atzetik etorritako arkitektura estiloena. Bertako kaleak zeharkatzean, hiriaren sorgune den hirigune historikotik kanpora joanez, historiaren panoramika bikaina eskaintzen digu.

ERDI AROKO HIRIGUNEA, IBILBIDE BAT HISTORIAN BARRENA

Hiriko Hirigune Historikoa da hirigune ederrena eta hobekien kontserbatu dena, ez soilik Euskadikoa, baizik eta Espainiako iparralde osokoa. 1997an monumentu multzo izendatu zen, eta bertako kaleetan barrena joanez hiriaren ibilbidea ezagutu dezakegu historian zehar.

Almendra gotikoak estilo artistiko desberdinen adibideak eskaintzen dizkigu, bertako eliza gotikoetan, errenazimenduko jauregietan eta etxeen fatxada barrokoetan, bai eta arkitektura neoklasikoaren adibide bikaina diren Arkupeak ere.

GOTIKOA

Erdigune historikoko lau eliza gotikoen dorreek (San Migel, San Bizente, San Pedro eta Santa Maria katedrala) hiriaren profila definitzen dute. San Migel izan zen eraiki zen lehendabizikoa, eta bertan aurkitzen da hiriaren zaindaria den Andre Maria Zuriaren kapera. Hiriaren behealdeko harresietan San Pedro altxatu zen, defentsa lanak egin izan zituen. San Bizente lauretatik azkena izan zen. Araban bakarra den saloi oinplano bat du eta oraindik ere bertako adarbea mantentzen du. Adarbe horretara dorrera igo ondoren sar daiteke, eta tenplua sostengatzen duten habeetara gidatzen gaitu. Santa Maria katedrala, bere aldetik, zaharberritze lanetan murgilduta dago, baina horrek ez ditu bertara bisitak egiteko aukerak itxi. 'Irekia eta obratan' programari esker, bertako barnealdea eta dorrea bisita daitezke, obretarako kaskoa buruan, bertako handitasuna ikusteko.



Espainia plaza



ERRENAZIMENDUA

Errenazimendu oparoak, aztarnak utzi zituen Goiuri, Montehermoso, Bendaña eta Eskoriatza-Eskibel jauregietan, gaur egun, eta hurrenez hurren, kongresuetarako gunea, kultur unea eta museoa direnak; Eskoriatza-Eskibel, bere aldetik, barnealdearen errestaurazio lanetan aurkitzen da. Montehermoso eliz barrutiaren buru izandakoa da, eta bere ondoan hiriaren Ur Biltegi Zaharra dago, gaur egun erakusketetarako gela dena. Bendañako jauregia XVI. mendeko jauretxea izan zen antzina; jauregia arkuz inguratutako patio bat ezkututzen duen dorretxe batetik sortu zen.

BARROKOA

Barrokotik Fresnoko markesaren eta Alamedako markesaren jauregiak mantendu dira. Mugimendu honetako adierazgarriak nagusia San Migel elizako erretaula da, Gregorio Hernandezek egin.

NEOKLASIKOA

Barrokoaren ondoren, eta hiriaren harresietatik kanpo, neoklasikoa nabaritzen hasi zen. Olagibel arkitekto gasteiztarrek Arkupe multzo bat sortu zuen mendi maldaren okerdura zuzentzeko bai eta hiria Erdi Arotik

Aro Garaikidera zabaltzeko ere. Hiriko lanik esanguratsuen osatzen dute Arkupeek, eta Espainia plaza neoklasikoan amaitzen dira, XVIII. mendearen amaierako plaza.

ZABALGUNEA

XVIII. mende amaieran eta XIX. mendean, kale berriak eraiki ziren, eta Floridako parkea altxatu zen, oinezkoentzako Senda Ibilbidea sorburu duen lorategi erromantikoa bera.

Parkeak zein gunek berdeak zeharkatuz, ibilbideak arkitektura historizistaren adibideak eskaintzen dizkigu, bertan aurkitu ditzakegun eraikinetan (museoak, Lehendakariaren bizileku den Ajuria Enea, etab.). Hiru kilometro baino gehiagoko ibilbide honek hiriaren bihotza eta Armentia bizitegi gunea lotzen ditu. Gune horretan ikus dezakegu San Prudentzio basilika erromanikoa.

Unibertsitatearen campusaren gunea ere aipatu behar da, antzinatasuna eta modernotasuna era armoniatuan uztartzen jakiteagatik. Honen adibide dira bertan Udal Artxiboa eta Artxibo Probintziala kokatu dituzten eraikinak, Koldo Mitxelena liburutegia eta bertako fakultate desberdinak.



Andre Maria Sortzez Garbiaren katedrala

SANTA MARIA KATEDRALA

Vitoria-Gasteiz aitzindari izan zen bere ondarea perspektiba dinamiko baten bitartez erakusten, bai eta publikoarekin hartu-eman bat sortuz, Santa Maria katedralaren zaharberitze prozesuaren bitartez. Pauso berdinak jarraituz, Arabako hiriburuak bere ondarea bisita berezien bidez erakusten du; bisitaria, kaskoa buruan, arkeologo edo ingeniari bihurtzen da, eta iraganaren xarma eta gaur -egungo zaharberitze prozesua ikusi ahalko ditu.

Ekinbide horrekin, 'Irekia eta obratan' lelopean, bisitaria ondarearen zaharberitze eta kontserbazio prozesuen parte sentitzea nahi da. Atzean geratu zen monumentu bat atetik soilik begiratzearen filosofia, orain Gasteizek bere ondarean ikertzeraz gonbidatzen du, ondare horren zimenduetatik hasita. Gasteizko hirigune historikoa Monumentu multzo izendatu zen 1997an.

Paulo Coelho, Ken Follett, Mario Vargas Llosa, Arturo Perez Reverte eta idazle eta intelektual asko eta asko liluratuta geratu dira eraikin horren sekretuekin eta ehun urtetik gorako historiarekin.

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIAREN KATEDRALERA BISITAK

Estilo neogotikoko eraikina ezagutzeko aukera ematen du; eraikin horretan eskultura talde interesgarriak eta gargola bitxiak ikus daitezke. Katedralak bisitatzea merezi duen arte sakratuko museo bat ere badauka.

HIRIAREN HARRESIETARA BISITAK

Santa Maria katedralaren zaharberitze lanak bisitatzeaz gain, herriaren harresian egiten diren bisita gidatuek Antso Jakitunak hiria eraiki aurretik egindako gotorlekuaren zati bat ezagutzeko aukera ematen digute, XI. mendean Gasteiz hiriaren inguruan egin zena, hain zuzen.

Gaur egun, berreskuratu den harresiaren zatia anbizio handiko proiektu baten parte da; proiektu horren bitartez Gasteiz inguratzen zuen harresia bere osotasunean hartu nahi da.





BIBAT museoa



Arkitekto garaikideek eraikitako museo eta jauregietan, dorreetan edo katedraletan dauden gune kulturalak. Vitoria-Gasteizen leku horietan erakusten da bertako kultura. Bisitariari bi irakurketa desberdin eskaintzen dizkioten museoak: eraikinon arkitektura bera eta bertako erakusketen aberastasuna, historiaren, artearen, naturaren edo Arabako industria tradizioaren inguruan.

BIBAT MUSEOa

Bibat museoak bi museo hartzen ditu bere baitan: Arabako Fournier karta museoak, errenazimenduko Bendañako jauregian kokatuta eta Arabako arkeologia museoak, Patxi Mangado arkitektoak egindako eraikin sortu berrian.

Arabako arkeologia museoak

Arkeologia museoak Arabako arkeologia ondarea gorde, mantendu, erakutsi, hedatu eta kudeatzen du, Historiaurrearen eta Behe Erdi Aroaren artekoa dena.

Arabako Fournier karta museoak

Arabako Fournier karta museoak ibilbide historiko tekniko eta tematikoa eskaintzen du jolaserako karten eboluzioaren inguruan. Museoaren bilduman sorburu askotariko karta sortak aurki daitezke, bai Vitoria-Gasteizen Heraclio Fournierrek egindakoak, baita munduko beste lekuetan egin direnak ere.

ARABAKO NATURA ZIENTZIEKIN MUSEOa


Kretazeo Goiztiarreko anbarak erakusten dituen aztarnategi arabarren erakusketak –munduko aztarnategi paleontologikorik garrantzitsuenetako bat–, Arabako itsas mesozoikoetatik eratorritako fosilek eta XX. mendeko Espainiako mineralen bildumak Arabako Natura Zientzien Museoan egiten dute bat. Museoak, gainera, eskualdeko naturaren elementu botaniko eta zoologikoen lagin bat ere eskaintzen du.

ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSEOa

Katedral Berriaren giroak gordetzen du erromanikoko, gotikoko, errenazimenduko zein barrokoko arte erlijiosoa erakusten duen elizbarrutiko arte sakratuaren museoak. Bost ataletan dago banatua: harria, enborra, oholak, mihisea eta zilarra. Museoaren funtsak Arabako Foru Aldunditik eta Gasteizko gotzaindegi eta elizetatik datoz.

ARABAKO ARMEN MUSEOa

Museo honetako armek eta hornidurek gizadiaren hasieratik XX. mendearen hasierara arteko eboluzioa erakusten dute. Harriak, gezi muturrak, ezpatak, sastakaiak, dagak, arkuak, Europako eta Asiako armadurak... Arreta berezia merezi du Gasteizko guduak.



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa



ARABAKO ARTE EDERREN MUSEOA

Arabako Arte Ederren museoa Agustin Zulueta jauregian kokatzen da, eta euskal artearen bildumarik ugariena du. 1850etik 1950era bitarteko obrak daude ikusgai, hala nola, Francisco Iturrino, Dario de Regoyos, Elias Salaberria, Ignacio Zuloaga eta Juan Etxebarria egileenak. XVIII. eta XIX. mendeetako Espainiako artelanak ere baditu, Vicente Lopez, Federico Madrazo edo Carlos Haes egileenak, besteak beste.

ARTIUM ARTE GARAIKIDEKO EUSKAL ZENTRO-MUSEOA

Artium museoak 3.500 artelanek osatutako bilduma bat du, eta horri esker Euskadiko arte garaikideko bildumarik garrantzitsuenetako bat da. Egile ugariren obrak aurki daitezke bertan, hala nola, Dali, Miro, Tapies, Chillida, Barcelo, Oteiza edo Serrarenak eta baita belaunaldi berrietako egileenak ere. Bilduma horretatik abiatuta, asmo handiko erakusketa programa bat sortu da, kultura garaikidearen inguruko jardueren agenda zabalak lagundu, umeei ere zuzenduta.

FAROLEN MUSEOA

Museo bitxi honetan Farolen Arrosarioaren prozesioa osatzen duten beira polikromatuzko farol eder-ederrak gordetzen dira; prozesio horrek hiriko kaleak zeharkatzen ditu abuztuaren 4an, iluntzean.

AIRE ZABALEKO MUSEOA

Kalean bertan kokatuta, aire zabaleko museo bikaina osatzen duten eskultura eta estatua ugari dago hiri osoan zehar. Horien artean, Espainiako eskultore garaikide famatuenen lanak aurki daitezke: Oteiza, Ibarrola, Chillida, Casto Solano, Nestor Basterretxea...



Ekialdeko parkea, Salburua



1995ean, hiriak Aalborg-eko Gutuna sinatu zuen, "Europako hiriak Iraunkortasunerantz". Espainiar estatuako lehendabiziko hiria izan zen Agenda 21 abiatzen, lurraldeen garapen iraunkorraren arloan aurrera egiteko eman beharreko urratsak ematen dituen.

Vitoria-Gasteizek nazio barruko zein nazioarteko sari ugari jaso ditu hiri iraunkorraren eredu bat aurrera eramateko ekinbideak burutzeagatik. Sari horietan azkena Biosphere Responsible Tourism turismo-helmuga iraunkorraren ziurtagiria izan da. Hona hemen sari horietako batzuk:

2016

- Biosphere Destination ziurtagiria, Turismo-helmuga Iraunkorra.

2015

- FAD Hiria eta Paisaia saria Vitoria-Gasteizko Alde Historikoan irisgarritasuna hobetzeagatik.

2014

- Gastronomiaren Hiriburu Nazionala.

2012

- European Green Capital 2012ko Europako Hiriburu Berdea.
- Sofia Erregina Saria, udalerrietako irisgarritasun saria.

2010

- "Conciencia de Biosfera José Celestino Mutis" saria hiriari eta bere Eratzun Berdeari. 2010eko iraila.
- Civitas Saria - Gasteizek garraioaren arloko europar sari nagusia, herritarren parte-hartzearengatik.
- Europa Nostra saria, Harresia osoro zaharberritzeko planagatik.

2008

- Hirigintza plan iraunkorraren lehen IDAE Saria, 50.000 biztanletik gorako udalerrien artean. Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) ematen du sari hori.
- Biodibertsitatea areagotzeko proiektuetarako (Udalen sailean) I. lehiaketako saria.



Salburuko parkea



2007

- Archival saria, Gasteizko Erdi Aroko hirigunea zaharberritzeagatik (urtarrilaren 30ean Madrilen emana).
- "Hiri iraunkorra" saria, ingurumenaren alde egindako politika integralaren aitopen gisa (Idoia Garmendiak jaso zuen saria, Bartzelonan, martxoaren 1ean, Cristina infantaren eskutik).
- Bioenergia 2007" saria, bioerregaia erabiltzearen aldeko apustuarengatik (Idoia Garmendiak jaso zuen saria, Madrilen, martxoaren 2an, Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren zuzendari M^o Teresa Estebanen eskutik).
- Hiri ingurueta irisgarritasunaren saria, hirigune historikoan arrantza mekanikoen proiektuagatik, Comillasen (Kantabria), Espainiako IX. Arkitektura eta Hirigintza Bienalaren barruan. Juan Carlos Alonsok jaso zuen saria uztailaren 26an, Carmen Chacón Etxebizitza ministroaren eskutik.

2006

- Klimaren aldeko Tokiko Jardunbide saria (garraio alorreko ekimenen sailean, bizikleten maileguagatik). FEMP-Xixon (urriaren 3an emana).
- ONCEn saria, bizikletak doan mailegatzeko zerbitzuaren baitan ikusmen arazoak dituztenentzako tandemak eta mugikortasun arazoak dituztenentzako hiru gurpileko bizikletak sartzeagatik.
- Barne Merkataritzaren alorreko Sari Nazionala (toki-administrazioen mailan), erdialdeko merkataritza sustatzegatik, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak emana. Saria urtarrilean eman zen.
- Olaguibel saria, Euskal herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak emana, Katedrala zaharberritzearen alde eginiko lanagatik.



Vitoria-Gasteizko tranbia



2005

- “Urbanismo sostenible” saria, Madrileko Higiezinen Aretoak 21 Zabalgunea udal elkarteari maiatzaren 26an emana.
- EUDELeK eta EEEK - Energiaren Euskal Erakundeak ematen duten Energia Sariaren 3. edizioko sari berezia (ekainaren 17an banatu ziren).
- NBEk San Frantziskon egindako Ingurumenaren Mundu Eguneko ekitaldietan eta “Hiri Berdeak” adierazpenean esku hartzeko gonbita luzatu zion Gasteiz hiriari.

2004

- Bandera Berdea-Hiri Iraugarri Saria, 8. urtez jarraian, hondakinen kudeaketaren alorreko politikengatik.

2003

- Hondakinen Espainiako Klubaren akzesita, 50.000 biztanletik gorako udalerrien artean politika jasagarrietan emaitzarik onenak lortu dituztenei eskainitakoa.
- Bandera Berdea-Hiri Iraugarri Saria, elkarren segidako 7. urtez.
- Europa Nostra saria, Santa Maria katedrala zaharberritzeko planagatik.

2002

- FEMPeK eta UNICEFeko Espainiako Batzordeak antolatutako Haurren Eskubideei eta Udal Politikari buruzko II. Lehiaketaren Saria, Haurren Partehartzea eta Famili Bitartekaritza programengatik. Azaroan eman zen.
- Bandera Berdea-Hiri Iraugarri Saria, elkarren segidako 6. urtez.

2001

- Bandera Berdea-Hiri Iraugarria Sariaren urrezko Aipamena. Abenduan entregatu zen.
- FEMPeK eta UNICEFeko Espainiako Batzordeak antolatutako Haurren Eskubideei eta Udal Politikari buruzko II. Lehiaketaren Saria, “Haur politika integralen sustapena” sailean.



Europa biltzar jauregia



2000

- Euskadi eta Nafarroako Hirigintzako Arkitektoen Elkartek ematen duen Hiria, Hirigintza eta Ekologia Saria.
- NBEk munduko 100 jarduera onenen artean aukeratu zuen Gasteizko Eratzun Berdea, Praktika Egokien Nazioarteko Hirugarren Lehiaketan.
- Ingurumen Hezkuntzako Sari Nazionala eman zion Gasteizko Udalari Ingurumeneko V. Biltzar Nazionalak.
- Bandera Berdea-Hiri Iraungarri Saria hiririk garbienari, elkarren segidako 4. urtez.

1999

- Expansi3n egunkariak eta Arthur Andersen enpresak emandako "Al municipio ecol3gico 1999" Saria (Mallorcako Calvi3 herriari eta bie). Bartzelonako IESarekin batera bi enpresa horiek Ingurumen eta Enpresaren inguruan urtero deitzen dituzten sarietako bat da. Isabel Tocino Ingurumen Ministroak entregatu zion martxoaren 18an.
- Kontsumitzaile Independenteen Elkartek ematen duen Bandera Berdea-Hiri Iraungarria Saria. Abenduan jaso zen Romay Becaria Osasun Ministroaren eskutik.

1998

- Lorezaintzako eta Paisaia Arteko Ikasketa Institutuak ohorezko saria eman zion Gasteizi Iberflora 98 azokan, hiri-paisaiaren eta lorategien arloan egindako lanagatik.
- Kontsumitzaile Independenteen Elkartek ematen zuen "Barrendero Ecol3gico" Saria hiririk garbienari, elkarren segidako 2. urtez. Urte horretako urrian jaso zen Romay Becaria Osasun Ministroaren eskutik.
- Ingurumenari buruzko IV. Biltzar Nazionalan, hiri iraungarriaren aipamen berezia eman zioten Udalari.

1997

- "Alimara" Turismo Sustapenaren XIII. Saria, Udalak argitaratutako "Vitoria-Gasteiz en todos los sentidos" gida turistikoiari. Bartzelonako Turismo eta Ostalaritza Zentroak deitutako sari hau apirilaren 25ean jaso zuen.
- Kontsumitzaile Independenteen Elkartek ematen zuen "Barrendero Ecol3gico" Saria hiririk garbienari. Urte horretako urrian jaso zen Romay Becaria Osasun Ministroaren eskutik.
- Abenduaren 23an, Multzo Monumental izendatu zuen Eusko Jaurilaritzak Gasteizko Hirigune Historikoa.



Erastun berdeko zidorra



1996

- Istanbulen, ekainean, egin zen Habitat II izeneko gailurrean bere esperientzia azaltzeko aukeratua izan zuen, estatu-mailako adibide gisa.
- Hiri iraugarri eredua Europan. Lisboan, urrian ospatu zen Hiri Jasangarrien II. Konferentzia.
- Gasteizko gizarte-etxeak eredutzat aukeratu ziren, Villette-n (Paris), urrian ospatu zen Hiri Segurtasunaren Europar Foroan.
- "Real Fundación de Toledo" Saria Gasteizko Erdi Aroko Hirigunea Erabat Zaharberritzeko Plan Berezia, hiriko Erdi Aroko Hirigunean garatutako jarduketa-multzoan izandako arrakastagatik.

1994

- Zilarrezko Plaka Kirol Merezimenduari. Urte bereko abenduaren 21ean jaso zuen Hezkuntza Ministerioko Kiroletako Kontseilu Gorenak emanda.
- Triángulo Rosa" Saria Gasteizko alkateari, heterosexualek zein homosexualen Elkarrekin Zibilek Erregistroa irekitzen zuen lehenengo herri-agintea izateagatik. 1994ko ekainaren 21ean entregatu zioten Madrilén Gay eta Lesbianen Kolektiboak deitutako hau.

1993

- Sport Quality 92 Saria. 1993ko maiatzaren 21ean jaso zuen.
- Bartzelona Hiria Kirol Saria.
- Berrito finalista, Kiroletako Asturiasko Printzea Sarian.

1992

- 1991ko Euskadi Kirol Saria. Lehendakariaren eskutik jaso zen 1992ko martxoaren 12an. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak deitua izan zen.

1991

- Finalista, Kiroletako Asturiasko Printzea Sarian.

1982

- Europa Nostra saria, Hirigune Historikoko zaharberritze-lanengatik.

2012ko Europako Hiriburu Berdea

14



Uraren lorategi sekretua



Vitoria-Gasteizek pertsonako 42 metro karratu hartzen dituzten gune berdeak ditu, eta gune berde kontsolidatuetan Europako lehen postuan da. 150.000 zuhaitzetik gora eta 70.000 zuhaixka inguru ditu, eta horrek lorategi botaniko erraldoi bihurtzen du hiria.

Hiria inguratzen duen eraztun berde handia osatzen dute ondorengoek: Salburuko parkea –bertako hezeguneengatik eta Ataria Salburuko hezeguneen interpretazio zentroagatik ezaguna–, Zabalganako parkea, Olarizu, Armentia, eta Dulantzi eta Zadorra ibaietako parkeak. Eraztun berde hori hiriaren birika naturala da, bai eta naturaz gozatzeko leku aproposa ere, oinez zein bizikletaz egin daitezken ibilbideei esker.

ERAZTUN BERDEAK natura hiriaren barruan integratzea ahalbidetu du, hiriko gune berdeen eta inguruko nekazal lurren arteko konexioei mesede eginez; konexio horiei esker, bioaniztasunak gora egin du. Hiritik hurbil egonda, hiriko biztanleriaren hazkunde zein aisialdirako gune garrantzitsu bilakatzeaz gain, indar zientifiko eta kultural handia dute.





Armentiaiko parkea



OLARIZUKO PARKEA

Abereak bazkatzeko gunee bihurtutako zelaiek, gurutzadun muino enblematikoak eta bertako bidexkek ematen diote nortasuna parkeari. Bertan kokatzen da CEA Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, ingurugiroarekin zerikusia duten jarduerak egiten dituenak.

ARMENTIAKO PARKEA

Erkametzek osatutako baso naturala da, hiri ingurunearen eta Gasteizko mendien artean dagoena. Bertako bidexketan zehar ibiltzeko eta bizikletentzako zein zaldientzako bideetatik joateko gunee aproposa da. Gainera, atsedentxo bat hartzeko aukera ematen dute bertako atsedenguneek.

ZABALGANA

Hiriaren eta landa munduaren arteko hartu-emana irudikatzen du, Arabako Lautadaren zein inguruko mendien ikuspegia eskainiz. Belardi, baso, urmael artifizial eta muinoek bat egiten dute bertako atsedengune, bidexka eta baso naturalarekin.

SALBURUA

Bertako hezeguneengatik da berezitua; hezegune horiek Nazioarteko Garrantzia duten Hezeguneen Zerrendan daude, eta Euskadiko hezegune kontinentalik baliotsuenak kontsideratzen dira. Publikora zabalik dauden hegaztien bi behatoki ditu, eta hain ugaria den aberedia ikus daiteke bertatik.

ZADORRA ATXA PARKEA

Lopidanako behatokiak eta Urarteko ortuek osatzen dute (azken horietan baratzezaintza ekologikoa egiten da). Horiez gain, belardiak, muino berdeak, oinezkoentzako eta txirrindularientzako bideak eta atsedenguneak ere badaude.

ZADORRA ABETXUKO PARKEA

Zadorra ibaiaren eta Salburuko hezeguneen artean kokatzen da. Dulantzi ibaiaren ertzetan kokatutako lursailek osatzen dute; lursailok 11 hektarea hartzen dituzte guztira. Parke honek garrantzi berezia du bi ekosistema preziaturen arteko 'korridore ekologikoa' baita. Gainera, desagertzeko zorian dauden espezieen babeslekua ere bada, bisoi europarra, esaterako.



Ataria Salburuko hezeguneen interpretazio zentroa



ATARIA

Ataria Salburuko hezeguneen interpretazio zentroa Eratzun berdeko txorrik enblematiko eta paregabeena da. Salburuko parkearen iparraldean kokatzen da eta Eratzunaren sarbide nagusia da. Eraikin batek eta kanpoaldeko espazio erantsi batek osatzen dute.

Ataria publikoari irekita dagoen espazioa da. Baliabide eta zerbitzu ugariri esker –erakusketetarako tokiak, ikasgelak, behatokia...–, Atariak mota askotako jarduerak hartzen ditu: aisialdi eta denbora-pasarako jarduerak, jendarteratze eta komunikaziorako, ikasketa eta ikerketetarako... Atariaren helburu nagusia hau da: hezeguneen ezagutzak mesedetu eta beren baloreak erakustea, eta bioaniztasuna eta ondare naturalaren garrantzia zabaltzea. Horretaz landa, Ataria ideien sorrera eta eztabaidarako foro bilakatu nahi da, non publikoak parte har dezakeen bai parkearen kudeaketan, baita bioaniztasunaren kontserbazioan ere.

HIRI ZIDORRAK ETA IBIL BIDEAK VITORIA-GASTEIZKO ERAZTUN BERDEAN ZEHA

Hiriak mota askotariko ekinbideak jarri ditu martxan; horien artean nabarmentzen da Vitoria-Gasteizko Eratzun berdearen inguruko hiri zidor eta bideak egiteko proiektua, proiektu horrek duen garrantzi sozialarengatik. Proiektu horren bitartez, oinezkoak eta txirrindulariak lehentasunez igarotzeko bideak sortuko dira hirian barrena; bide horiek hiriaren erdigunea eta inguruko auzoak bertako landa gunen naturalekin lotuko dituzte.

BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZUAK ETA 'BIZITAXIAK'

Hiriko zenbait ostatuk (hotel, nekazal etxe eta apartamentuak) bizikletak alokatzeko zerbitzua eskaintzen dute, hiria bestelako modu batean ezagutzeko. Gainera, badira bizikletak alokatu eta behar diren lekuetara eramaten dituzten enpresak. Hirian zehar modu jasangarrian ibiltzeko beste aukera bat 'bizitaxi' bat hartzea da.



Hirigune historikoko arrapala mekanikoak

HIRI IRISGARRIA

Euskadiko hiriburuan, ia mila urte dituen hiri bat duzu zain, Erdi Aroko trazatuaren zati handi bat, mendra itxura bitxia eta harresiaren hondarrak gordetzen dituen. Gure hirigune historikora heltzeko, arrapala mekanikoak eta kanpoaldeko igogailu bat ditugu. Hiri irisgarritasunaren inguruan oso kontzientziatua dagoela ere ikusiko duzu. Horren erakusgarri da 2013ko abenduan Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioko printzipioak betetzeko asmoz Irisgarritasunaren aldeko Hirien Sarera atxiki izana.

Hainbat izan dira irisgarritasun turistikoa hobetzeko egindako ahaleginen ondorioz lortutako sariak: Urrezko Txintzarria (2005), ONCEk Gasteizko Turismo Bulegoari emandakoa; Udalerrietako Irisgarritasunaren Sofia erregina saria (2012); eta PAD saria (2015), alde zaharrerako irisgarritasun hobekuntzagarriko arkitekturako Europako saria.



Gure hirian hainbat ekintza turistiko egin ahalko dituzu, gidatuta zein zure kontura. Turismo Bulegoak programatutako edozein bisitatan izena ematera animatzen zaitugu- gure gidariek zure beharretara egokituko dute ibilbidea- edo jauregiak, museoak edota katedral zaharra eraberritzeko lanak, mundu osoko idazle eta intelektualak seduzitu dituztenak, zure kontura ikustera.

Horrekin batera, Erdi Aroko upategi egokituetara jaisteko, herri kirolak egiteko, gatz harana ikusteko edo itsuentzako sukaldaritzak lantegietan (show cooking sentiñiboa) parte hartzeko aukera ere baduzu inguruan, beste aukera askoren artean.



Salburuko parkea



Gure hiriko kulturaz, ohiturez eta gastronomiaz ahalik eta gehien goza dezazun nahi dugu, eta, horrekin batera, inguru paregabe hau zaintzen lagun dezazun. Horregatik, aholku hauek betetzea eskatzen dizugu:

JOAN AURRETIK

1. Bilatu helmugaren ahalik eta informazio gehien: historia, kultura, natura, sukaldaritza eta abar.
2. Ahalizanez gero, aukeratu tokiko garapenarekin eta ingurumenaren zaintzarekin konprometituta dauden bidaia-antolatzaileak, zerbitzu-entresak eta abar.





Zabalgana parkea



BERTAN ZAUDENEAN

3. Gogoan izan oporrak aukera ona direla beste kultura bat ezagutzeko. Saiatu bertako ohituretara eta batez ere herritarretara egokitzen. Gidariak bertakoak izateak askoz ere aberasgarriagoa egingo du zure bidaia.

4. Eskala txikian pentsatu; hiriko ondasun, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea onuragarria da gure ekonomiarentzat, eta elkar eragiteko eta gure hiria hobeto ezagutzeko aukera ematen dizu.

5. Tokiko kultur adierazpenen eta eskulanen alde egin. Saiatu tokiko produktuak kontsumitzen eta erosten. Tokiko ekonomia garatzen lagunduko duzu eta, gainera, bikainak dira.

6. Garraiobide ekologikoak erabili. Gasteiz hiri ezin hobea da bizikletaz mugitzeko. Gainera, eraginkorra eta eroso da garraio publikoa, eta leku turistiko interesgarrietara eramango zaitu. Horrela, hiriko ingurumen inpaktua txikitzen lagunduko duzu.

7. Natur baliabideak, hala nola ura eta energia, neurriz erabili (urriak dira). Zure laguntza eskatu nahi dizugu papera, beira eta gainerako ontziak bereizteko. Geu arduratuko gara birziklatzeaz.

8. Bidean, zure urratsak utzi, baina ez bestelako arrastorik: hondakin gutxi sortu (ez bota zaborrik lurrera eta ez egin graffitirik).

9. Natur guneeetan, saiatu bide zidorretatik joaten; ez egin enbarazu landare eta animaliei, eta saiatu horien bizilekuak ez hondatzen. Ahal izanez gero, tokiko gidari batekin ikusi horrelako lekuak.

GERO

10. Etxera itzultitakoan, egin Gasteizen eta horren inguruan ikusi eta bizi izandakoari buruzko gogoeta, eta esan jendeari gu ezagutzera etortzeko.

Eskerrik asko zure bisitagatik.



Magialdia Nazioarteko Magia jaialdia



Hiriak urte osoan zehar jazotzen diren festa- eta kultura-ekitaldi asko eta askotarikoak eskaintzen ditu. Horien artean, ondorengoak nabarmentzen dira:

URTARRILA

- 'XXI. mendeko Flamenkoa' zikloa.
- Errege Magoen desfilea.
- Haur ikuskizunen erakustaldia.
- Goi mendiari buruzko jardunaldiak.

OTSAILA

- Hezeguneen mundu eguna..
- Haurrentzako ikuskizunak 'Txoroleku' espazioan.
- Zinemastea Gasteizko Euskal Zinemaren Astea.
- Kontzertu Handien zikloa.

MARTXOA

- Inauteriak.
- Gasteiz On moda pasarela.
- Musika elektroakustikoaren eta teknologia berrien Sinkro Jaialdia.
- Kontzertu Handien zikloa.

APIRILA

- Azoka Napoleonikoa.
- San Prudentzio jaiak eta Danborrada (apirilak 27 eta 28).
- Liburuaren egunaren Azoka.
- Aste Santuko programa turistikoa berezia (martxoa edo apirila).
- Arabako Pintxoaren astea eta Arabar Errioxako ardoaren astea.
- Kontzertu Handien zikloa.

MAIATZA

- 'Poetak maiatzean' Nazioarteko Poesia jaialdia.
- Gastoswing jaialdia.
- Martin Fiz maratoia.
- Bioaniztasunaren mundu eguna .
- Museoen nazioarteko eguna .
- Latin Yar Vitoria-Gasteiz.
- Aste napoleonikoa (maiatza/ekaina).
- Kontzertu Handien zikloa.

EKAINA

- Big Band jaialdia.
- Kaldearte – Kaleko Arteen Nazioarteko Erakusketa.
- Azkena Rock jaialdia.
- Ecorrally Vitoria-Gasteiz.
- Ingurunearen festa .
- Nazioarteko Jolas-Jaialdia.



Kandelen gaueko animazio-ikuskizuna



UZTAILA

- Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Jazz Jaialdia.
- Blusaren eguna (uztailak 25).
- 'Titereando' Txotxongiloen bidezko antzerki erakustaldia.
- Udako kanpaina turistikoa.
- Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Xake Opena.
- Distantzia erdiko triatloiaren Espainiako txapelketa.
- Nazioen jaialdia.
- Gasteiz Cup txapelketa.
- 'Dibertikale' kale ikuskizunen zikloa: haurrentzako animazioa, gau festa, magia eta antzerkia.

ABUZTUA

- Andre Maria Zuriaren jaiak (abuztuaren 4tik 9ra)
- Umorezko antzerkiaren jaialdia (Araia).
- Organoen nazioarteko jaialdia (Arabar Errioxa).

IRAILA

- FesTVal.Vitoria-Gasteizko Irrati eta Telebista jaialdia.
- Magialdia – Nazioarteko magia jaialdia.
- Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko Azoka.
- Olarizu erromeria.
- Gasteiz On moda pasarela.

URRIA

- Nazioarteko Antzerki jaialdia.
- Hegaztien mundu eguna.

AZAROA

- Periscopio–World Press Photo.
- Nazioarteko Antzerki jaialdia.
- Bonsai erakusketa.
- Carmelo Bernaola Nazioarteko Musika jaialdia.
- 'Haurtxoak proiektua' Antzerki jaialdia.

ABENDUA

- Kandelen gaua.
- Gabonak: izotz pista, Gabonetako Haur Parkea, jaiotzen ibilbidea, Olentzeroren eta Errege Magoen desfileak...
- Gabonetako Nazioarteko Gimnastika Gala.
- Kazolatxoaren astea eta Arabar Errioxako ardoaren astea.
- Goxo-goxo Azoka.
- Ardoa zaharrear.
- Sun (shopping urban night).
- 'Cortada' Vitoria-Gasteizko Laburmetrai jaialdia.
- Bonsai erakusketa.
- Araba Encounter.
- San Silvestre herri lasterketa.



Lore eskaintza, Andre Maria Zuriaren jaiak



Urtean zehar ospatzen diren jai guztietatik, hauek nabarmendu daitezke:

Apirilak 27 eta 28. SAN PRUDENTZIO

Arabako zaindaria. Haren ohorezko jaiak bezperan hasten dira, Gasteizko Probintzia plazan jotzen den danborraden erretretarekin, eta santuaren egunean jarraitzen dute, Armentiakoko basilikarainoko erromeriarekin; bertan hainbat jai-ekitaldi egiten dira.

Uztailak 25. SANTIAGO

Jantzi tradizionala daramaten blusek kaleak girotzen dituzte egun horretan. Baratzurien azoka historikoa ere ospatzen da, San Frantzisko aldapan kokatzen dena.

Abuztuaren 4tik 9ra.

ANDRE MARIA ZURIAREN JAIK

Abuztuaren 4an, arratsaldeko seietan, jaiak txupinazoarekin eta Zeledonon jaitzierarekin hasten dira; Zeledon hiriko jaietako pertsonaia adierazgarria da, eta 'zerutik' behera jaisten da. Momentu horretatik hasita, musika, animazioa eta ikuskizunak ikus daitezke hirian barrena, egun osoan zehar.



Zeledonon jaitsiera, Andre Maria Zuriaren jaiak



ZELEDONEN JAITSIERA. TXUPINAZOA

Gasteizko jaietako txupinazoa alaitasunez eta emozioz beterik dago. Abuztuaren 4an, 80,000 lagun inguru biltzen dira, arratsaldeko seietan, Andre Maria Zuriaren plazan, Zeledoni harrera egiteko. Baseritarrez jantzitako panpina batek ordezkaturako pertsonaia hori jendez betetako plazara jaisten da, txalo eta oihu artean, giza itxura hartuta gasteiztarren eta bisitarien aurrean agertu baino lehen, dibertsioari hasiera emateko. Momentu paregabea da, hunkigarria, Andre Maria Zuriaren jaien benetako sinbolo.

BLUSEN PASEOTXOA

Ehunka gasteiztarrek osatutako Blusa eta Neska kuadrillak dira Andre Maria Zuriaren jaietako bereizgarria. Jantzi desberdinekin jantzitako hainbat taldek zezen-plazarako joan-etorria egiten dute egunero, zezenketa aparta ikusteko. Txarangen musikak lagunduta egiten dute desfilea, Gasteizko jaiegunetako arratsaldeak animatzen dituzten ikuskizuna eskainiz. Halaber, Blusaren Eguna ere ospatzen du hiriak, uztailaren 25ean, Andre Maria Zuriaren jaien aurretik.

ERRALDOIAK

Andre Maria Zuriaren jaietan, erraldoien konpartsak tradizioz betetzen ditu Gasteizko kaleak. Hiru metrotik gorako figurak dira eta hainbat pertsonaia irudikatzen dituzte, tartean karta-jokoko lau erregeak, Fournier karten sorleku den hirian ezin egokiagoak direnak. Figura deigarri horiek ikuste hutsak haur eta helduen haridura pizten dute, eta are gehiago txistu-doinuak lagunduta kaleetan barrena dantzan eta biraka ikusita.

FAROLEN PROZESIOA

Argi eta beira ikuskizun bikain batek hartzen ditu Gasteizko erdiguneko kaleak abuztuaren 4an, gaueko hamarretatik aurrera. Andre Maria Zuriaren kofradiako kideek urteko gainerako egunetan Farolen Museoan ikusgai egoten diren farolak garraiatzen dituzte, eta Andre Maria Zuriaren irudia izan ohi da prozesioaren protagonista.



San Antonio kaleko denda



Vitoria-Gasteizek harrituta utziko zaitu denda txiki bitxiekin, esperientzia berdingabekoekin, ohiz kanpokoekin. Xarmaz beteriko dendatik hasi, eta dendarik 'trendy'-enera, hiriaz gozatzeko eta erosteko proposamena egiten dizugu.

Vitoria-Gasteizen, 2014an Gastronomiaren Hiriburu izanik, ez da soilik bapo jaten, baizik eta kalitate bikaineko produktuak ere eros daitezke, bertako zaporeak gogora ekartzeko: Arabar Errioxako ardoa, Arabako txakolin freskagarria, gozoki finak, Arroniz motako olioak, Arabar Mendietako eztiak, Arabako babarrun pintoa, zaporerik onenak gordetzen dituzten kontserbak...

Eta benetan bertakoak diren produktuak nahi badituzu, Fournier karta sortak edo Arabako zeramika eros dezakezu.

ZABALGUNE NEOKLASIKOA

- 1 ALABA JENERALAREN KALEA
- 2 SAN ANTONIO KALEA
- 3 EDUARDO DATO KALEA
- 4 SAN PRUDENTZIO KALEA
- 5 MANUEL IRADIER KALEA
- 6 FORU KALEA
- 7 INDEPENDENTZIA KALEA
- 8 BAKE KALEA
- 9 POSTA KALEA
- 10 OLAGIBEL KALEA

ERDI AROKO HIRIGUNEA

- 11 HEDEGILE KALEA
- 12 ZAPATARI KALEA
- 13 ERREMENTARI KALEA
- 14 AIZTOGILE KALEA

- 15 AZOKA PLAZA





Pintxoak



Plater gastronomikorik onenak kalitatezko osagaien eta sukaldearen maisutasunaren bidez lortzen dira. Vitoria-Gasteiz janaria mimoso prestatzen duen hiria da; 2014an Hiriburu Gastronomikoaren saria eskuratu zuen. Horretarako errezeta hauxe da: maila altuko jatetxe eta erretegiak, pintxoan ibilbideak –miniaturan egindako euskal gastronomiaren ohiko erakusgarria–, pintxo-potea, ibilbide goxoak, delicatessen denden ibilbideak, enotekak, abangoardiako zein tradiziozko sorkuntzen inguruko jarduerak, ekintza gastronomikoak, profesional eta sukaldari ospetsuen harrobia –Diego Guerrerok, adibidez, Madrilgo Club Allard jatetxean bi Michelin izar lortu zituen–, sariak, kalitate oneko produktuak...

Ardoaren hiriburu izanik, Arabar Errioxako ardoa eta Arabako txakolina errezetaren parte dira, nazioarteko ezagutza eskaintzen baitiote hiriari. Europako Hiriburu Berde izanak ere, hiria ezagutu eta dastatzeko aitzakia paregabea da.

Eta, gainera, Vitoria-Gasteiztik apurtxo bat eraman nahi baldin baduzu, bertako delicatessen denda, enoteka eta goxoki dende beren produktuekin liluratuko zaituzte, hala nola trufak, San Prudentzio eta Andre Maria Zuriaren tartak, etxean egindako kontserbak, fruta-otarreak, produktu freskoak...

GASTRONOMIA ERAKUSKETAK

MARTXOA: Gasteiz on moda pasarela. Pasarelako Pintxoak, Vitoria-Gasteiz.

APIRILA: Arabako Pintxoaren eta Arabar Errioxako ardoaren astea eta San Prudentzio jaiak (ohiko menua: barraskiloak eta perretxiko nahaskiak), Vitoria Gasteiz.

UZTAILA: Pintxoaren Aste Nagusia (ekaina-uztaila). Baratzurien merkatua, Vitoria-Gasteiz. Gatzaren artisau-azoka, Gesaltza-Añana.

IRAILA: Olarizu erromeria, 'Patatak txorizoarekin' Nazioarteko Txapelketa, FesTVal (beldurrezko pintxoan ibilbidea) eta Erdi Aroko Azoka, Vitoria-Gasteiz. Mahats biltzearen jaiak, Arabar Errioxa. Merkatu ekologikoa.

URRIA: Babarrun pintoaren azoka, Pobes.

AZAROA: Arabako elkarte gastronomikoen lehiaketa, Vitoria-Gasteiz.

ABENDUA: Ardoaraba, Goxo-goxo azoka, Kandelen gaua eta Gabonetako Azoka, Vitoria-Gasteiz.



Azoka Plaza



TAILERRAK ETA DASTAKETAK

AZOKA PLAZA

1975etik martxan den azoka hau 2015ean zaharberritu zuten eta gaur egun beirazko estruktura batek estaltzen du. Hiriaeren erdigunean dago kokatua, jende gehien ibiltzen den eremuetako batean, eta 12.000 metro koadro hartzen ditu orotara, bost solairutan banatuta.

Bertan aurki daitezke kalitatezko produktuen merkatu tradizionala, aisialdiaz eta errestaurazioaz goatzeko zortzi gastrobar eta bertako produktu eta produktu ekologikoak egiten dituzten lokalak. Bertako ikastegi enogastronomikoak dibulgazio eta formazio gastronomikoan dihardu; sukalde moderno bat eta 15 lanpostu ditu, bai eta erabilera askotariko albo gela bat ere. Tailerrak edo produktuak dastatzeko jarduerak programatzeko dago pentsatuta, bai profesionalentzat bai amateurentzat ere. Erabilera anitzeko terrazan dauden hiri-ortuak ikastegi enogastronomikoak ere baliatzen ditu.

SHOW COOKING OSTALARITZA ESKOLETAN

Euskadi ezin da ulertu bertako gastronomiarik gabe. Hiriko ostalaritza eskolek gure sukaldaritza tradizional zein modernoaren sekretuak bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen dute. Arabar Errioxako ardoa eta Arabako txakolina uztartuz egindako saio parte-hartzaileak ere eskaintzen dira.

MAMIA

Ogia protagonista den tokia, usaintzeko, ikusteko, dastatzeko eta ikasteko tokia. Bertan batzen dira ogi-lantegia, denda eta sukaldaritza sorkuntzarako gela.

SU ALAI

Hastapeneko sukaldaritza zein sukaldaritza aurreratuko klaseak, haurrentzako monografikoak, gozogintzaren, begetarianoen zein arrozen inguruan, teambuilding, cooking party...

SAL Y COCINA

Klasean dastatuko diren mota guztietako platerak egiteko tailerrak eskaintzen dira. Maila guztietarako ikastaroak, umeak barne.

ON EGIN SUKALDARITZA AKADEMIA

Hasierako ikastaroak, ikastaro aurreratuak, bat-bateko sukaldaritza, egile-sukaldaritza, pintxoak eta etxeko kazolatxo eta gozogintza. Ikastaro eta tailerren katalogo zabala.

GOZOAK, NAHIERAN

Leku eroso honetako kafetegian bertako opilak dastatu ahalko dira – hala nola tartak, cupcake-ak, pastak eta magdalenak –, baita horiek egiten ikasi ere. Zeliakoentzat, diabetikoentzat, laktosa eta glutenari intolerantzia diotenentzat.



Vitoria-Gasteiz triatloia



Hiriaren ezaugarrietako bat dira kulturarako eta kirolerako gunek diren Gizarte Etxeak. Guztira 13 gunek daude, auzo desberdinetan banaturik; honekin batera, Zabalganako auzoan gizarte etxe bat dago egiteke.

Azpiegitura horiek izanda, hiritarrek zein bisitariek mota askotariko kirolak egin ditzakete. Igerilekuak, saskibaloia jokalekuak, atletismo pistak, izotz pistak, frontoiak eta jarduerak fisiko egokiturako zentroak erabiltzeko aukera eskaintzen dute.

Hirian, gainera, lehen mailako kirolari eta taldeak daude. Caja Laboral Baskonia eta Deportivo Alaves taldeak, eta Martín Fiz, Almudena Cid edo Juanito Oiarzabal kirolariek munduan barrena eraman dute Vitoria-Gasteizen izena.

KIROL EKINTZA NAGUSIENAK

MARTXOA

- 'Badmintoneko Gasteiz Hiria' nazioarteko opena.

APIRILA

- Euskal Herriko Itzulia.

MAIATZA

- Araba Rugby Cup.
- Martín Fiz nazioarteko maratona.
- Orbea Basque Country Cycling.

EKAINA

- Emakumearen lasterketa.

UZTAILA

- Vitoria-Gasteizko triatloia.

AZAROA

- Euskal Gym.

ABENDUA

- Vitoria-Gasteizko maratona erdia.
- Gimnasia Erritmikoko Nazioarteko Jaialdia.
- San Silvestre lasterketa (abenduak 31).



Europa Biltzar Jauregia



Zerbitzuen hiriburu eta negozioen eta bileren gune operatiboa den aldetik, Vitoria-Gasteizek duen kokaleku estrategikoa eta bere azpiegiturak kontuan izanik, leku ezin aproposagoa da kongresu edota bilerak egiteko.

Vitoria-Gasteizek 1986. urteaz geroztik dihardu biltzar-jardueran, eta hasiera-hasieratik sektore profesionalei kalitatea eta azpiegitura egokiak eskaintzearen aldeko apustua egin du.

EUROPA BILTZAR JAUREGIA

Europa Biltzar jauregia Euskadiko biltzar jauregien aitzindaria da, eta, goitik beherako zaharberritze prozesu baten ondoren, iraunkortasunaren erreferente bilakatu da: bertako energiaren kontsumoa % 60ra murriztea lortu da. Landarediaz osatutako aurrealdeak hiriaren nortasun "berdearekin" bat egiten du. Jauregiak edozein motatako jardunaldi, azoka edo gertakizun sozial ospatzeko ekipamendu eta aretoak ditu.

GOIURI JAUREGIA

Hiriak biltzarretarako bi gune ditu: Goiuri Jauregia –2016an zaharberritutakoa eta hirigune historikoan kokatuta, Erdi Aroko harresiaren ondoan– eta Europa Jauregia.

Bi gune horiekin batera Vitoria-Gasteizen MICE eskaintza osatzen dute biltzarretarako guneek, kultura ekipamendu bereziek, museoek eta egokiro hornitutako hotelek.

- Hiria Spain Convention Bureau taldearen kide da.
- Europa biltzar jauregia ACPE Espainiako Biltzar Jauregien Erakundearen kide da.



Arkupeen etxea



HIRIA ETA BERTAKO OSTATUAK

Hiriak ostatu sare bikaina du. Hiriaren inguruan turismo paradore bikaina eta 250 lagunentzako kanpina aurki ditzakegu.

Gainera, Vitoria-Gasteizek xarma handiko aterpe bat du, 90 lekurekin.

Arabako lurraldeak kalitate eta xarma nabarmeneko landetxeak eskaintzen ditu.

VITORIA-GASTEIZKO OSTATUAK

MOTA	GELA KOPURUA	LEKU KOPURUA
Hotelak (*****)	147	278
Hotelak (****)	516	1071
Hotelak (***)	298	574
Hotelak (**)	310	662
Hotelak (*)	103	180
Ostatuak (**)	106	186
Ostatuak (*)	56	105
Apartamentuak	174	477
GUZTIRA	1.707	3.533
Aterpea	19	90
Camping-a	--	250
Landa-etxeak eta apartamentuak	--	44



Arabako Errioxa

Erabat liluratuko zaituzten sei ibilaldi proposatzen dizkizugu Arabako probintzian barrena:

Lautadan barrena

Probintziaren erdialdean dago eta herri eta kultura ezberdinen arteko iraganbide izan zen urte luzez. Baso hezeak, lautada amaiezinak, baserri giroko paisaiak, eraikin erromanikoak –hala nola Armentiko basilika (XII. mendea)–, Estibalizko Andre Mariaren santutegia, Gazeo edo Alaitza, Aguraingo hirigune historikoa eta bertako San Juan eta Santa Maria elizak...

Arabako Errioxan barrena

Kontrasteen eskualdea da; bertako mahastiak inguruko ezaugarrien bizikide dira: harresitutako eta Erdi Aroko hiribilduak, trikuharriak eta arkitekto famatuak (Ghery, Calatrava, Aspiazu...) egindako abangoardiako upelategiak. Toloñoko mendilerro handiaren pean aurkitzen den ohiz kanpoko paisaia da Arabako Errioxa.

Gorbeia eta Aramaio artean

Gorbeiako natura parkeak besarkatua, probintzia osoan paisaiari dagokionez balio handienetakoa duen eremua dugu honako hau. Goiuriko ur-jauzia –100 metrotik gorakoa–, Oroko Andra Mariaren Santutegia eta eskualdeko urtegiak eta dorretxeak dira bertako eremurik adierazgarrienak.

Aiaraldean barrena


Aiara kantzilerraren etxean barrendu zaitez. Kantzilerra Errenazimenduaren aitzindaria izan zen, bai eta poeta, lau erregeen kronista, diplomatikoa, gerlaria eta erregearen kontseiluko kidea ere. Bisita ezazu Kexaako monumentu multzoa: Adatseko Andre Mariaren elizaren kapera eta dorrea, San Joan Bataiatzailearen eliza eta XIV. mendean Aiara kantzilerrak eraikitako jauregi-gotorlekua, gaur egun arte sakratuko museo dena.

Arabako Mendialdean barrena

Erdi Aroko hiribildu, jauregi eta jauretxe garrantzitsuez gain, ermitak eta antzinako elizak kontserbatu dira eskualde honetan. Izkiko natura parkea Euskadiko hirugarren parkerik handiena da. Naturan barrena Izki Golf eremua aurki daiteke, Severiano Ballesteros golfariak eraikitako 18 zuloetako zelaia.

Añanako barrena

Añanako Gatz Haranak bertako historia ezagutzeko aukera ematen digu bisita gidatuen bitartez; Harana milaka urteko historia duen monumentua da (2015eko Europa Nostra Saria). Bertako errestituzio-prozesua ikusi ahal izango duzu, bai eta gatz mota ezberdinak eta Spa gazia ezagutu ere. Eremu honetan honako gune hauek ere aurkitu daitezke: Iruña-Veleiako aztarnategi arkeologikoa, Santa Katalinako lorategi botanikoa, Baronatarren Dorretxea, Valderejoko Natura Parkea...



www.vitoria-gasteiz.org/turismoa

VITORIA GASTEIZ

turismo

& convention bureau

TURISMO BULEGOA

España plaza, 1

Telf. 945 16 15 98

Fax. 945 16 11 05

turismo@vitoria-gasteiz.org



: turismovitoria



: turismo_vitoria



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

